



HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUEN ARTEKO LANKIDETZA-PROTOKOLOA

Urtarrilaren 15eko 1/96 Lege Organikoak, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzkoak, adingabekoei behar bezalako laguntza emateko agintzen die herri-administrazioei, beren eskubideak erabil ditzaten, beren garapen pertsonala eta soziala kalte ditzaketen egoerak prebenitu eta oneratzeko, eta, babesgabeziako egoerarik ematen bada, haiek zaintzeko.

Arrisku handiko edo babesgabeziako egoerak ematen badira, lurralde-zerbitzu espezializatuak derrigorrezkoa dute egoera horietan esku-hartzea eta adingabekoen zaintza eta/edo tutoretza beren gain hartzea.

Administrazioak hartuko du tutoretza, baldin eta adingabekoen gurasoek edo legetutoreek ez badituzte betetzen haiek babesteko betebeharrak, betebeharrak bete ezin badituzte edo ez badituzte behar bezala betetzen. Tutoretza-neurriak automatikoak dira eta behin behinean ezartzen dira. Horien ondorioz, eten egiten da guraso-ahala eta erakunde publikoak hartzen du tutore-kargua.

Administrazio-zaintzaren kasuan, aldiz, gurasoek herri-administrazioari eskatzen diote adingabekoen zaintza bere gain hartzea, baldin eta, egoera larriren bat ematen delako, ezin badituzte haiek zaindu. Behin-behineko neurria da hau ere, baina ez du guraso-ahala eteten.

Egia da adingabeko gehienentzat familia dela beren oinarritzko beharrianak asetzeko ingurune egokiena, baina egia da, era berean, batzuetan nahitaezkoa izaten dela haiek familia-ingurunetik ateratzea eta adingabekoentzako gizarte-dispositiboren batean hartzea.

Adingabekoak egoitzaren batean hartzeko neurria hartzea erabakiko da, baldin eta hori bada aukera onuragarriena adingabekoarentzat, eta behar besteko denboran —eta denbora horretan soilik— luzatuko da neurri hori.

Adingabeko bat egoitza batera eramateko erabakia hartzen bada, haren familia-bizitza eteteaz gain, erasan egiten dira haren bizitzan garrantzizkoak diren beste alderdi batzuk ere; hala nola, eskolako jarduna eta horrek guztiak haurrari ematen dion guztia. Beraz, neurri horrek eragin onuragarriak dituen arren (tratu txarregandik eta/edo abandonu-egoeratik babesten da adingabea), baditu alderdi kaltegarriak ere, eta komeni da azken horiek ahalik eta gehien murriztea, adingabekoaren bizitzan "jarraitasun-zentzua" berrezartzen saiatzeko.

Baina ez da beti izaten posible hori egitea, eta, kasu batzuetan, ez da komeni jarraitasun horri eustea; beraz, kasu horietan, adingabekoa familia-ingurunetik irten eta egoitzara iristen denean, hautsi egiten dira neurri hori hartu aurretik testuinguru horiekiko zituen loturak.



Neurri horien beste eraginetako bat izaten da adingabekoak utzi egin behar izaten duela bere ohiko ikastetxea, beste ikastetxeren batera joateko. Ondorioz, lagunengandik urrutiratzen da, beste irakasle batzuk izaten ditu, beste eskola-ohitura batzuetara egokitu behar izaten du, eta, kasu batzuetan, hizkuntza-ereduz ere aldatzen du.

Ikasturtea hasita badago, koordinazio-ahalegin handia, bikoitza, egin behar da adingabea eskola-testuinguru berrian sartu eta egokitzeko, ikastetxeak berak ere egokitzapenak egin beharko baititu ikasle berriak hartzeko bere hezkuntza-komunitatean.

Egoera horiek askotarikoak direnez, erantzunak ere anitzak eta haiei egokitutakoak izan behar dute. Horrenbestez, komeni da hezkuntza-sistemaren eta babes-sistemaren arteko koordinazioa ahalik eta onena izatea adingabekoek bizi dituzten aldaketa horiek ahalik eta eragin kaltegarri gutxien izan ditzaten.

1. PROPOSAMENA: Foru-aldundietako haurtzaro, gazteria eta familiako zerbitzuek eta udaletako gizarte-zerbitzuek lankidetzan jardungo dute Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzekin, ikastetxeetako pertsona titularrei eta langileei prestakuntza emateko, gizarte babesgabetasuneko egoerak hauteman ditzaten eta egoera horietan nola jardun behar duten jakin dezaten, haurren eta nerabeen eskubideen defentsan. Hori guztia otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, Haurrak eta nerabeak zaindu eta babestekoak, 24. artikuluan arautzen duena betez egingo da.

Ekintza horien helburua da ikastetxeei informazioa eta prestakuntza ematea, behar bezala aztertu eta erabil ditzaten haurrek eta nerabeek erakuts ditzaketen gizarte-babesgabetasuneko adierazleak.

Horrekin batera, berariaz eskatzen da irakasleentzako Gida bat egin dadila, harrera-egoeratan dauden ikaslerik izanez gero jakin behar diren oinarrizko alderdiak biltzeko (terminologia, neurriak, baliabideak...).

Haurra edo nerabea egoitza batean hartzen bada, egoera bat baino gehiago eman daitezke ikastetxearekiko:

1.- Haurra edo nerabea egoitza batean hartzek **ez badakar ikastetxe-aldaketarik**, orain arte bezala jardungo da lurralde bakoitzean.

2. PROPOSAMENA: Uste baldin bada harrera-zentro batean harteak berehalako ondorioak izan ditzakeela haurraren edo nerabearen eguneroko dinamikan, horren berri emango zaio ikastetxeari, harrera hori egin baino lehen. Haurra edo nerabea egoitza edo harrera-zentrorra joaten denean, bilera bat hitzartuko da kasuaren koordinatzailearen eta ikastetxeak egokitzen jotzen dituen profesionalen artean (ikastetxeko zuzendaria, tutorea, orientatzailea, laguntzako langileak). Bilera horretan, informazio hau emango zaie azken horiei:

- Haur edo nerabearen egoera berria
 - a.- zaintza edo tutoretza
 - b.- helbide berria
 - c.- harremanetarako pertsonak, bai babes-erakundean, bai egoitzako harrera-baliabidean. Babes-erakundeek egoitza-harrerako kasuetan izaten duten funtzionamendu-dinamikari jarraituz, kasuaren koordinatzailea izango da babes-erakundearekiko harremanetarako pertsona, eta, egoitza-

baliabidearekiko, adingabekoak egoitza horretan duen hezitzaile-tutorea (zentroko zuzendaria).

- Babes-neurria hartzeko arrazoiak
- Haurrak edo nerabeak ikastetxean izan dezakeen errendimenduan, eta, oro har, haren eskola-bizitzan eragina izan dezaketen zirkunstantzia espezifikoak.
- Zaintza-kasuetan, familiak ikastetxearekiko beteko dituen funtzioak zehaztuko dira, bai eta babes-erakundeak bere gain hartuko dituenak ere (kasuaren ezaugarriak aintzat hartuta, familiak berak ere parte har dezake bilera horretan).
- Tutoretza-egoeretan, ikastetxearekin argituko dira neurri hori hartzeak hainbat erabaki hartzeko orduan izango dituen ondorio edo eraginak (ebaluazioan, matrikulazioan, ikastetxez aldatuko den ala ez, Ordezkaritza Organo Goreneko ordezkaritza, etab.). Hau da, erakunde publikoa izango da adingabekoaren legezko tutorea, eta egoitza-zentroko zuzendaritzaren esku utziko da tutoretza hori erabiltzeko ardura.

2.- Adierazi dugun moduan, adingabeko bat egoitza batean hartzen den kasu gehienetan, adingabeko horrek **ikastetxez aldatu behar izaten du**, eta aldaketa hori hezkuntza-sistemak matrikulak egiteko ezartzen dituen epeetan egin daiteke edo epe horietatik kanpo.

Horrenbestez, alderdi hauek kontuan hartu behar dira egoera horiek protokolizatzeko:

a.- **Ikastetxe-aldaketa matrikulazio-epéen barruan egin badaiteke**: Martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuak arautzen du ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan onartzeko modua. Berariaz, dekretu horren 11. artikulua arautzen du urtero finkatuko dela, Hezkuntza sailburuaren agindu bidez, ikastetxeetan onartua izateko eskaerak aurkezteko egutegi komuna.

b.- **Matrikulazio-epetatik kanpo egin behar bada ikastetxe-aldaketa**:

Irizpide orokorra izango da adingabeak ordura arte ikasi duen ikastetxean amaitzea ikasturtea, ahalik eta egonkortasun handiena izan dezan, bai bere bizitzan, bai gelako jardueretan.

Kasuaren ezaugarriei erreparatuta, lege-tutoreek uste badute ezinbestekoa eta atzeraezina dela adingabea ikastetxez aldatzea, familiak edo erakunde publiko arduradunak zuzenean egingo dute aldaketa horren eskaera hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako Ikastetxeetako zerbitzuan, eta horrek emango du eskaera horri dagokion ebazpena.

Aldaketak ezinbestekoak eta atzeraezinak badira gerora sortutako egoerengatik, jakinaraziko da ikastetxeek ezin dituztela baimendu, eta Ordezkaritza Zentroetako zerbitzuan eskatu behar direla. Azken horrek ebatziko du dagokiona. Horren tramitea familiek egin dezakete zuzenean, edo erakunde publiko arduradunak haren tutoretzapeko adingabea bada, edo ikastetxearen bidez ere egin daiteke.



Aldaketa ezinbestekoa eta atzeraezina egiten duen arrazoia etxe-aldaketa bada, Ordezkaritzak ikastetxe-aldaketa baimen dezake soilik berriki bi udalerriren arteko aldaketa bat izan bada, edo, udalerrri baten barruan, utzi nahi den ikastetxetik 2 kilometro baino urrutirago badago. DBHko 3. eta 4. mailan dauden ikasleen kasuan, distantzia 4 kilometrokoa izango da. Etxearen helbidearen aldaketa gertatu dela egiaztatzeko, familiaren erroldatze-ziurtagiria jaso beharko da eskaeran. Agiri horretan adieraziko da zer egunetan eman den alta helbide berrian.

3. PROPOSAMENA: Ikasle arruntentzat errolda-agiria erantsi behar zaio eskaerari, baina egoitza-harrerako egoeran dauden ikasleen kasuan, harrerako foru-agindua edo erakunde publiko arduradunaren ziurtagiria erantsiko da.

Ikastetxe-aldaketa arrazoitzen duen egoera bestelakoa bada, eskaera hori egiteko arrazoiak emango dira eskabidean eta egoera horiek kreditatzeko agiriak erantsiko dira. Kasu horietan, Ordezkaritzako ikastetxeetarako zerbitzuak ebatziko du eskaera, ikuskaritza-zerbitzuaren txostenari erreparatu ondoren.

4. PROPOSAMENA: Egoera horietan guztietan denbora-muga bat ezarri behar da plaza esleitzeko eta adingabekoa eskola-testuinguru berrian egiaz eta behin betiko hasteko.

Proposatzen da txosten hori egiteko epea 5 egunekoa izatea gehienez, eta lurralde-ordezkaritzak ikastetxez aldatzeko proposamenak ez gainditzea 10 eguneko epea.

5. PROPOSAMENA: Harrerako ikastetxeek, baliabide mugatuak dituztela argudiatuta, hezkuntza bereziko baliabide espezifikoak esleituta dituzten ikasleak hartzeko arazorik jar ez dezaten, honako helburu hauek proposatzen dira:

- a.- Harrera-neurriak dituzten ikasleak hartzen dituzten ikastetxeek, ikasleen hezkuntza-premiak aztertu ondoren, kalitate goreneko hezkuntza-erantzuna bermatzea, beharrezkoak diren baliabideak emanez.
- b.- Ikasle horiek ikastetxez aldatzeko prozesuan parte har dezatela lege-tutoreek (aldundiek) eta beren ardurapekoak diren eginkizun guztiak bete ditzatela.
- c.- Ikasle horien eskolatzean parte hartzen duten eragile guztiek informazio zuzena eta berehalakoa izan dezatela.
- d.- Prozesu argi bat ezartzea ikastetxe bateko irteera eta besterako sarrera prestatzeko, gehienezko denborak eta jokabide-ildoak finkatuz.

Horrenbestez, proposatzen da ikaslea ikastetxez aldatzeko prozesu normalean SARE-KOORDINAZIOKO une edo momentu bat finkatzea, eta une horretan biltzea jatorriko ikastetxea (aholkularia/orientatzailea), ikaslea hartuko duen ikastetxea (aholkularia/orientatzailea), Berritzeguneko teknikari diziplina anitzekoak eta aldundietako teknikariak. Koordinazio-saio horren helburua izango da informazioa trukatzeko eta kasu bakoitzerako egokienak diren erabakiak hartzea:

- Zer egoeratan zegoen ikaslea ikastetxean?
- Zer laguntza behar du ikasleak?
- Erabaki bakoitza hartzeko gehienezko denborak, eta, zehazteko modukoak badira, laguntzak inplementatzeko epeak.
- ...

Adingabeko ikaslea bakarrik dagoen atzerritarra bada, hau izango da ikastetxe-postua esleitzeko prozedura:

- a) Lege-tutoreek, zuzenean edo edozein ikastetxeren bidez, eskola-postu bat eskatuko diote Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako eskolatze-batzordeari.
- b) Altako ikastetxearen zein den jakinaraziko du eskolatze-batzordeak.
- c) Jakinarazpen hori ikastetxeari egiten zaion momentutik izango da matrikula indarrean.
- d) Dagokion kasuetan, lege-tutoreek alegazioak jar ditzakete eskolatze-batzordeak hartutako erabakiaren aurka.

6. PROPOSAMENA: Helburu hauek jarraituko dira 18 urtetik beherakoen eskolatze-prozesua hobetzeko:

- Informazioa ematea adingabekoen eskolatzeari buruzko erabakiak erraztu eta hobetzeko.
- Eskolatze-prozesua arintzea, itxaron-deborak murriztuz.

Horrenbestez, proposatzen da harrera-egoeran dauden adingabekoen lege-tutoreek informazio-fitxa bat egitea (ikus 1. eranskina: IKASLEEN EPEZ KANPOKO ESKOLATZEA / ESCOLARIZACIÓN DEL ALUMNADO FUERA DE PLAZO), Eskolatze Batzordeek hartaz balia daitezzen zer eskolan matrikulatuko diren erabakitzeko. Fitxa horrek adingabekoaren identifikazio datuak jaso behar ditu (jaiolekua, harremanetarako pertsona ...), aurretiazko eskola-historia (horren berri baldin badago), ikasleak dakizkien hizkuntzak, hauteman zaizkion hezkuntza-premiak (behar dituen eta/edo jasotzen ari den laguntzak), adingabekoaren Etxetik egiten den eskolatze-proposamen arrazoitua...

7. PROPOSAMENA: Kontuan hartu beharreko beste egoera bat da, egoitza-baliabide batean sartzeko baldintza izatea ikastetxearen laguntza eskuratu beharra, bestela adingabekoaren banantzea ezinezkoa izango delako.

Adingabeko pertsona bat haurren babeserako zentro batean sartzeko bidea ikastetxetik egingo da kasu bakar batean. Kasu hori ematen dela erabakitzeko, hau baloratu behar dute foru-aldundietako Haurtzaro, Gazteria eta Familia Zerbitzuek:

- Adingabeko pertsona familiaren bizilekutik ateratzeak muturreko erresistentzia edo indarkeria sorraraziko duela.
- Haurra egoera babesgabe larri batean izatea haren osotasun fisikoari edo psikikoari dagokionez, eta egoera horri erantzuteko behar-beharrezkoa izatea adingabeko hori berehala sartzea haurrak babesteko zentro batean.

Urrats hauek emango dira kasu horietakoren bat ematen denean:

- Informazioa. Lankidetzaren proposamenaren berri emango zaio ikastetxeari eta, ondoren, hartuko den neurria eta neurri hori hartzeko arrazoiak azalduko zaizkio. Informazio hori ikastetxeari jakinaraziko zaio neurria berehala hartuko den kasuetan (24 edo 48 orduko epe batean), ikastetxea ez dadin egoera delikatu batean izan familiarekiko behar-beharrezkoa den denbora baino epe luzeago batean.
- Neurria betetzea. Foru-instantzietan ezartzen den egunean, tutoretza nork



bereganatuko duen eta bisita-erregimena jakinaraziko zaie gurasoei. Hori egiterik ez badago, erabakia 48 orduko epe batean jakinarazteko neurriak hartuko dira. Erabakia gurasoei jakinarazten zaien unean, kasuaren koordinatzailea ikastetxera joango da tutoretza-ziurtagiriarekin. Egoera azalduko dio adingabeoari, eta erabaki den harrera-egoitzara lagunduko du. Aurreikusteko modukoa bada gurasoen erreakzioak eragotzi egin dezakeela neurria betetzea, une berean egingo dira bi gauzak, alegia, adingabea ikastetxetik egoitza-baliabidera eramatea eta erabakia gurasoei jakinaraztea, Haurtzaro Zerbitzuan.

- Neurri hartu ondorengo koordinazioa. Ikaslea harrera-baliabidean sartzen denean, kasuaren koordinatzaileak ikastetxeari jakinaraziko dio nola ari den ematen harrera-prozesua, bai adingabea egoitzarekiko, eta egoitzan den erreferentziazko pertsonarekiko.

8. PROPOSAMENA: Azkenik, eskola-absentismoari dagokionez, indarrean dauden protokoloak baliatzea gomendatzen da. Ildo horretatik, harrerako egoitzen arduradunei eskatzen zaie eskura dituzten bitarteko guztiak balia ditzatela, derrigorrezko eskolatzeko adinean dauden adingabeak beren ikastetxera joan daitezen.

Harreran hartutako ikaslea, eman daitezkeen askotariko arrazoiren baten ondorioz, ikastetxeetatik kanporatua izan bada, ikastetxe horiei eskatuko zaie 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa, behar bezala garatzeko, batik bat, II. kapituluko hirugarren atala, neurri zuzentzaileak garatzen dituen, eta III. kapitulua, jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak garatzen dituen, hau da, prozedura formaletatik at hartzen diren neurri hezitzaileak — adiskidetzaren eta egindako kaltearen konponketan oinarritzen direnak— hartzeko, bai eta kasuan kasuko ikasleen hezkuntza-konpromisoak bilatzeko, bizikidetzaren hobetze aldera.



1. eranskina.- **IKASLEEN EPEZ KANPOKO ESKOLATZEA / ESCOLARIZACIÓN DEL ALUMNADO FUERA DE PLAZO**

IKASTETXEA/CENTRO:
EREDUA/MODELO:
UDALERRIA/MUNICIPIO:

IKASTETXE-KODEA/COD.CENTRO:
LURRALDEA/TERRITORIO:
SAREA/RED:

1. Ikaslearen datuak/Datos del alumno/a

Izena/Nombre		Jaioteg./F. nacim.
1. ABIZENA/1er APELLIDO		Jaioterrria/Lugar
2. ABIZENA/2º APELLIDO		Sexua/Sexo
Helbidea/Domicilio*	Udal./Población	Tel

* Errola-ziurtagiria erantsi/Adjuntar certificado de empadronamiento

2. Familiako datuak/Datos de familia

Izen-abizenak/Nombre y Apellidos	Ahaidetasuna/Parentesco	Jatorriko herrialdea/País de origen
	Aita/ Tutorea Padre/Tutor	
	Ama/ Tutorea Madre/Tutora	
	Anai-arrebak/Hermano/a	Adina/Edad

4. Familiaren migrazio-ibilbidea/Itinerario migratorio familiar

Estatua/ Autonomia Erkidegoa/País/C. Autónoma	Herria/Localidad	Data/Fecha

5. Familiaren hizkuntzak/Lengua(s) familia

--	--	--

6. Udalerrian geratzeko asmoa/Proyecto de permanencia en el municipio actual:

BAI/SI EZ/NO

7. Ikaslearen eskola-historia/Historia Escolar del alumno/a

ESTATUA/AUTONOMIA ERKIDEGOIA PAÍS/COM. AUTÓNOMA	IKASTETXEA CENTRO	ESKOLA MAILA NIVEL ESCOLAR	HIZKUNTZA EREDUA MODELO LINGÜÍSTICO	IKASTURTE A CURSO

8. Ikastetxean eskolatzeko erakunde honen parte hartzea behar izan da

Para su escolarización en el centro ha sido necesaria la intervención

Aldundia/Diputación
Gurutze Gorria/Cruz Roja

Udala/Ayuntamiento
GKEak/ONGs

Besterik/Otros
(zehaztu)/(especificar)

9. Bestelako oharrak (interesatzen zaizun ikastetxea, etab.)/Otras consideraciones (centro preferido,...)

1.-